

— Jolastu eta ikasi —
Elkanorekin

Jokoaren gida



Zer da “Jolastu eta ikasi Elkanorekin”?

“Jolastu eta ikasi Elkanorekin” abentura interaktibo bat da, zortzi kapitulu edo mugarritan Magallaes-Elkano espedizioaren balentria kontatzen duena. Honako kapitulu hauetan dago egituratuta:

1

Sevillatik abiatzea

Espedizioaren testuinguru historikoa, prestaketa eta itsasoratzea.

2

Rio de Janeirorantz

Bost ontziak badoaz Atlantikoan barrena, Hego Amerikara bidean.

3

Puerto de San Juliáneko matxinada

Magallaesen kontrako altxamendu bat egon zen. Espainiara itzultzera behartzen saiatu ziren, baina Magallaesek altxamenduari aurre egin zion eta bidaiak aurrera jarraitu zuen.

4

Magallaes itsasartea

Ozeano Barerako pasabidearen bilaketa, Suaren Lurraldean barrena.

5

Mariana uharteak

Guam uhartean atsedean hartzea eta beharrezko guztiaz hornitzea, lehorra zapaldu gabe hiru hilabete eman ostean.

6

Filipinak

Magallaes heriotza Maktango batailan.

7

Moluka uharteak

Bidaiaren helmugara, espezien irletara, heltzea.

8

Espainiara itzulera

Itxaropen Onaren lurmuturretik eta Cabo Verdetik igarotzea, Sevillara itzultzea eta bidaiaren balantzea.

Zertan datza

“Jolastu eta ikasi Elkanorekin”?

“Jolastu eta Ikasi Elkanorekin” hezkuntza esperientziaren helburua da ibilbide bat egitea mapamundian, hasieran Magallaesen eta, hura hil ondoren, Elkanoren agindupean zeuden ontziek egindako bide berari jarraikiz. Ikasleak zortzi geldialdi egingo ditu, bidaiaren mugarri garrantzitsuenetan, informazioa biltzeko, eta, horretan oinarrituta, jarduera interaktibo batzuk gainditu beharko ditu, bidaiaren hurrengo etapara heldu ahal izateko.

Hezkuntza ibilbidearen eskema honako hau da.

1. Sarrera

“Jolastu eta ikasi Elkanorekin” hezkuntza jokoaren URLra sartu.

2. Ongi etorri bideoa

Hasierako bideo honetan, hezkuntza-jokoaren helburuak, bidaiaren etapak eta jokoaren jarraibideak azalduko ditu Juan Sebastian Elkanok, “*Elkano, lehen mundu-bira*” animaziozko filmeko protagonistak. Berak lagunduko dio ikasleari ibilbide osoan.

3. Ibilbidearen mapa

Ongietorri-bideoaren ondoren agertuko den mapan barrena mugituko beharko du ikasleak, Elkanoren bidaiaren zortzi etapak egiteko.

Hezkuntza-jardueraren funtzionamendua:

- Mugarri edo etapa bakoitzera kronologikoki sartuko da, bidaia osoa amaitu arte. Behin amaitutakoan, ikasleak nahi bestetan ikusi ahalko du berriz, nahi duen ordenan.
- Mapan ezarritako etapa bakoitzean bideo bat agertuko da. Bertan, Elkanoren pertsonaiak etapa horretako gertakari nagusiak azalduko ditu. PDFn ere deskargatu ahalko da kapituluaren edukia, kontsulta-material gisa.
- Bideoa ikusi ostean, autoebaluazio jarduera bat agertuko da. Hiru saiakera egin ahalko dira gainditzeko, eta gainditu eta gero, ibilbidean aurrera jarraitu ahalko da hurrengo etapara arte.
- Ikasleak 3 saiakerak agortzen baditu, mezu bat agertuko zaio, materiala aurrerako erreparatzeko dioena. Hala ere, bidaiari jarraitzeko aukera izango du, hurrengo etapak ezagutzeko.
- Etapa horiek mapan osatuta agertuko dira, ikaslea mapan ibilbidea markatuz joan ahala.
- Azken etaparekin bukatzen da hezkuntza esperientzia.

4. Deskargatzeko materialak

Ikasleek eta irakasleek kontsulta-materiala deskargatu ahalko dute, edukia indartzeko edo zabaltzeko. Honako hau da:

NOR DA NOR? fitxak

Dokumentu honetan, protagonistei eta balentrian izan zuten rolari buruzko informazio-fitxak daude.

Ikastaroko edukiak PDFn

Ikastaroan ikusitako edukia PDF formatuan jasoko da, bai ikastaro osoa, bai etapa bakoitzaren kapituluak banaka.